

noaua

**Emakumeentzako
ahalduntze eskola
berriak**

**Santueneko jaiak,
iruditan**

**Igandean, Imuntzo
eta Belokiren erromeria
Artzabalen**



Zero guneraino iritsi zen buzo zurien martxa

LASER DIODO IRAUNKORRA LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN

Depilatzeaz nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra lortzeko eskaintza paregabea eskaintzen dizugu URRIAN eta AZAROAN:

**%10^{eko}
deskontua**
bezero berriak edo
lehendabiziko sesioa
hanka erditan,
osoetan edo
ingletan

INTZA
ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)



USURBIL
SAGARRAREN BIHOTZA.
SAGARDOAREN KULTURA

2018
IRAILA-ABENDUA



29 LARUNBATA
20:00 Frontoian

Euskal Herriko IV. Sagardo Txapelketa herrikoien finala

Usurbil herria eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen eskutik. Afalduz, Euskal Herriko beste herrietan sailkatu diren 12 sagardo dastatuko dituzu, eta norberaren iritzia arabera erabakiko da zein den aurtengo txapelduna.

Txartelak salgai: Txiriboga, Artzabal, Bordatxo, Alkertasuna, Astiazaran eta Gipuzkoako Sagardogile elkarteak. 943 33 68 11- info@sagardoa.eus

27 osteguna 19:30 Aitzaga elkarteak
Sagarrari sukaldea dario
Dani Lasa sukaldari ikertzailearen eskutik.

28 ostirala 19:30 Sutegiko auditorioan
Sagardoa bidegile
Dokumentalaren proiektzioa.

USURBILGO
SAGARDO
EGUNAREN
LAGUNAK



SAGARDOA FORU-TE
GUNE-EREMUA

Sagardoaren
Unibertsitatea



NOQUA

Albiste iruditan

Euskaraldian izen emateko garaia

A di, "Ahobizi" nahiz "Belarriprest" guztiok. Heldu da eguna, zabalik da jada herritar ororentzat, azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri mailan, eta Usurbilen noski, deitu den Euskaraldian izen emateko epea. 11 egunez euskaraz hitz egin, entzun, aritu, eta euskaraz bizitzeko ekimenean parte hartzeko bide ezberdinak dituzue.

Izen ematea, paperez egin nahi dutenek, eskuragarri dituzte NOAUA! K.E.-ren egoitzan, Potxoenean, Euskaraldiko partaide diren elkarteetan eta kalean jarriko den mahaian. Online bidez ere bideratu ahalko da inskripzioa, usurbil.euskaraldia.eus atari estreinatu berrian.

Informazio zabala eskaini zen irailaren 20an Potxoenean egin zen solasaldian, Olatz Altuna (Soziolinguistika Klusterrako kidea) eta Inazio Usarralde (EMUN-eko hizkuntza teknikaria) he-



Buskaraldiaren lagun taldea handitzen doa Usurbilen.

rikideekin. Amaieran atera zuten talde argazkia duzue ondokoa.

Xehetasun gehiago datorren astekearian.

Laburrean

Urriaren 20an, 1955eko kinto bazkaria

Urriaren 20an batuko dira Atxega jate-txean. Izena emateko azken eguna, urriak 11. Izena emateko:

Maribi Arrospide 675 006 445
Patxi Arruti 615 760 458

Urriaren 21ean, 1946an jaiotakoen bazkaria

Urriaren 21ean bilduko dira Antxeta jate-txean. Izen emateko deitu aurrez, urriaren 14a baino lehen, Laurok liburu dendara edo 943 363 448 telefono zenbakira.

Mundualdia prestatzeko bilera

Urriaren 20an ospatuko da Mundualdia. Antolaketa-lanak bideratzeko baztar irekia deitu du Udalak: irailak 27 osteguna, arratsaldeko 19:00etan Potxoenean.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Luken Arkarazo

Iraultza Txikien Akanpada

Eraikuntzarako garaia da Euskal Herrian. Beste errealitate bat posible dela erakusteko garaia, galderen erantzunak paper gaineratik inguru fisikoan hezuramitzeko. Baina maiz arrazoi ezberdinak medio, sindikaturik gabe eta erraminta kaxa galdu duen langile bakartiaren antzera aurkitzen gara. Norbera bere esparruan eragiten, isolaturik. Hori gutxi balitz, azkenaldian ortzimuga berdin baten alde borrokan ari denarekiko urruntzen gaituen distantzia handiagotzera jo izan dugu. Ipar orratza apurturik duen iraultzailearen antzera. Besteen borroka gutxietsiz eta destruktiboki kritikatu. Gure diskurtsoan hainbeste kritikatu dugun indibidualismo kolektibo baten ordezkari bilakatu. Honela aritu izan gara gehiegitan politikoak, kulturetak, feministak edota ekologistak kontsideratzen garen aktibistak.

Denok ulertzen, defendatzen eta borrokatzen dugu mundu ezberdin baten alde. Kosta egiten zaigu ordea ulertzea eta onartzea, gutxi garelako, eta gutxiengo komun batzuetara iritsi ezean, nekez lortuko dugula aurrean dugun munstroa garaitzea. Nekez hari zauririk ñimiñoena ere eragitea.

Anabasa honetan ezinbestekoa izango den batasuna erakitzeke helburuz burutu zen pasa den asteburuan Zubietan Iraultza Txikien Akanpada. Esperimentu sozial baten gisara, galderetatik abiatuta, ideien, ereduaren eta arauen muga katramilatsuak irauli eta herri mugimenduaren esparru ezberdinen aniztasunetik esperientziak eta pentsamenduak kolektibizatzeke helburuarekin burutu dena. Komunitatea eraldatzeko proposamen baten antzera, pentsamendu errebelde komun baterantz, herri mugimenduaren atomizazioaren aurka oinarri bateratzaile batzuk

ezartzeko xedearekin.

Honi guztiari, zentzu ludiko eta basati bat ere gehitu zioten. Egia baita, antolatzaileek dioten moduan, “Bizitza laburregia dela eta aktibismoan denbora asko xahutzen dugula. Askotan emaitza kaxkarrek eragiten duten samin eta desilusioekin”. Ezin dugu unibertso berririk sortu gure geneetan ez badugu zaintzen maitasun eta konfidantza katea. Horregatik, Akanpada mahainguru eta hitzaldi mamitsuen artean, lekua egon zen abesteko, dantza edota antzerkia ikusi eta egiteko. Porrotera ohitzera kondenatuta gaudela badirudien arren, ez dugu patu hori onartuko eta irri eginez hortzak erakutsiz esango diegu ez dugula amore emango.

Bestetik akanpadako ekimenetan, nire ustez zinez beharrezkoa den zentzu kritiko bat ere azpimarratu da. Herri mugimenduaren ordezkari zein norbanakoek beldur bariarik eta askatasun osoz mintza-

tu direlarik burutu ditugun akats eta hanka sartzeen inguruan. Gure kasuan, gure borroketako bat izan da azken urteetan Erraustegiaren aurkakoa, gatazka luzea eta neketsua. Hala ere, arrazoi soil horren bitartez zaila da ulertzea Akanpada eta batez ere igandeko Erraustegira buruturiko martxara hurreratu ginen usurbildarron kantitate urria. Batez ere azpimarratzeko izan zelarrik gazteriaren hutsunea. Agian arestian aipaturiko atomizazioaren adibide izan daiteke, itzela izan baitzen Lasarten pasa den ostegunean Ernaik deituriko Erraustegiaren aurkako manifestazioa.

Azkenik, esatea martxan bitzako uneen artean, gogorrena ez zela izan ertzainen eraso eta oldarraldi neurrigabeak pairatzea, baizik eta Erraustegia ia eginda dagoe-la ikustearen ezintasuna. Baina oroitu oraindik ez dutela martxan jarri.

Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Luis Aranalde | **Luken Arkarazo**

Gaztelekuaren aurkezpena

Erabiltzaile berrien gurasoei Gazteleku ezagutzera emateko bilera deitu du Usurbilgo Udalak ostegunerako, irailak 27, 18:00etan Gaztelekuan bertan.

Bilera horretara izen emate orria eta irudiak erabiltzeko baimen orria beteta eraman beharko dute gurasoek. 12-17 urte arteko zuzenduriko egitasmoak irailaren 22an abiatu

zuen ikasturte berria. Honako ordutegia du:

■ Astelehenak: 16:30-18:00 DBH 3-4. 18:00-19:30 Guztiak.

■ Ostegunak: 16:30-18:00 DBH 2. 18:00-19:30 Guztiak.

■ Larunbatak: 16:00-17:30 DBH 1. 17:30-19:00 Guztiak.

Informazio gehiago:

943 371 050
gazteleku@usurbil.eus

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Emakumeentzako ahalduntze eskola berriak

Doako ikastaro berriak iragarri ditu Usurbilgo Udalak, udazken parterako.

■ Biodantza ikastaroa: urriaren 5etik abenduaren 14ra. Ostiraletan, 16:45-18:15 artean Oiarde Kiroldegian. Irakaslea: Elen Kortaxarena Gesalaga.

■ "Heltzeko plazera, zahartzen ikasten" (erdaraz): urriaren 4tik abenduaren 20ra. Ostegunetan, 17:00-19:00 artean, Bake Epaitegi atzeko lokalean. Irakaslea: Pepa Bojo, psikologoa.

Oharra: ikastarootan usurbildarrek izango dute lehentasuna.



Urriaren 5etik abenduaren 14ra biodantza ikastaroa Oiarde Kiroldegian.

Izen emateko epea:

urriaren 3ra arte.

Izen ematea (doan): Usurbilgo

Udaleko Parekidetasun Sailean
943 377 110

parekidetasuna@usurbil.eus

Dantza ikastaro laburrak Orbeldi-ren eskutik

Helduei zuzendutako estilo ezberdinetako dantza ikastaro laburrak antolatu ditu Orbeldi D.T.-k. Ikastarootan izen emateko epea zabalik egongo da, ikastarook hasi aurreko hilabetezko azken egunera arte:

■ Flamenkoa: urriaren 5ean, 19an eta 26an. Irakaslea: Junkal Martin.

■ Hip-hop: azaroaren 9an, 16an eta 23an. Irakaslea: Sergio Nguema.

■ Sabel dantza: azaroaren 29an, abenduaren 14ean eta 21ean. Irakaslea: Warda Mallal.



Izen-ematea zabalik da.

Prezioak:

■ Ikastaro bakoitza 15 euro.

■ Ikastaro guztietan izena emanda, 35 euro.

Izen ematea:

orbeldi.udt@gmail.com

Ostegunetan, 19:00-21:00, Oiarde Kiroldegiko dantza gelan.

Ekintzaileentzako diru-laguntzak

■ Jarduera ekonomiko berri bat martxan jartzeko herrian den lokal komertzial huts bat biziberritu nahi duenak, lehen urtean alokairu gastuaren %40a (gehienez ere 300 euro) eta bigarrenen gastuaren %30a (gehienez 200 euro) ordaintzeko laguntza jaso dezake.

■ Kabiene Elkartearen elkarlan-gunean 12 hilabeteko egonaldia egiteko beka deialdia.

■ Eskabideak aurkezteko epea: irailaren 30era arte.

Bi deialdien antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Ikastaro berriak KzGunean

Irailaren 28ra arte goizez zabalduko dute KzGunea, 09:00-13:00 artean. Urriaren 1etik aurrera, 16:00-20:00 artean. Segidan, datozen ikastaroen berri:

■ Irailak 27-28, 09:00-11:00 "Bapateko mezularitza zure Smartphone bidez".

■ Irailak 28, 11:00-13:00 "Sasoi ona lortu azken kirol aplikazioekin".

■ Urriak 1-9, 18:00-20:00 "Smaphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi".

■ Urriak 10-11, 18:00-20:00 "Bapateko mezularitza zure Smartphone bidez".

■ Urriak 15-18, 18:00-20:00 "LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu".

Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37.

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Haurren

bertso-eskola

Urriaren abiatuko du ikasturte berria, LH 2, 3 eta 4. mailako ikasleei zuzendutako haurren bertso-eskolak. Saioak eguerditan izango dira, Udarregi Ikastolan, 13:30-14:30 artean. Urteko kuota, 65 euro. "Garaiz zaudete izena emateko", gogorazi dute Bota Puntubakoek.

Inskripzioak bideratzeko deitu 608 768 539 (Josu) telefono zenbakira.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patricia Jaitéxea
- bazkariak EGUNERO
- afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

ARRANDEGIA
PELLO
ORDUTEGI BERRIA:
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA
9:00-13:30
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA
17:00-19:30
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
© 943 370 008

Aitortza eta eskertza, erraustegia geratu eta alternatibak abiarazi zituztenei

Gipuzkoa Zutik mugimenduak erraustegira antolaturiko buzo zurien martxaren aurretik, omenaldi beroa jaso zuten, bere garaian erraustegia geratu eta alternatibak martxan jarri zituzten udal nahiz Foru Aldundiko ordezkari ohi hainbatek. Aitortza ekitaldi txalotua izan zen.

Errausketaren aurka lanean dabilzan herri mugimenduek, Usurbil, Hernani, Oiartzun edo Antzuola bezalako udalderiei, hondakinak erraustearen aurrean, alternatibak martxan jartzeko eginiko lan itzela zoriondu eta eskertu zieten. Oholtza gainean ziren, Xabier Mikel Errekondo eta Marian Beitalarrangoitia, Usurbil eta Hernaniko alkate ohiak hurrenez hurren, baita Enrike Lekuona eta Joxe Mari Iturbe, Antzuola eta Oiartzungo zinegotzi ohiak ere. Eta haiekin batera, San Marko Mankomunitateko agintari ohi Rikardo Ortega eta Imanol Azpirotz, Lasarte-Oria eta Usurbilgo zinegotzi ohiak hurrenez hurren.

2011-15 legealdian hondakinen kudeaketaren ardura hartu, eta aitortza ekitaldian zioten moduan, Gipuzkoako gizarteak eskatutakoa bururaino eraman



Hainbat agintari ohi omendu zituzten Zubietako frontoian egin zen ekitaldian.

ANTOLATZAILEAK

“Posible da herritarrei gizarteak aldatu eta hobetzeko emandako hitza betetzea”

eta Zubietako erraustegia geratu izanagatik, publikoki eskertu zitzaizen baita, legealdi hartan jardunean aritu ziren Foru Aldundiko ingurumen diputatu ohi Iñaki Errazkini eta Gipuzkoako Hondakinen Kon-

tsortzioko (GHK) lehendakari ohi Ainhoa Intxaurrendietari.

“Garai gogorrek bizi ditugu”

Gogoan izan, erraustegia geratzeagatik bi ordezkari politikook epaitu zituztela udaberrian, epaiaren zain dira. Ekitaldian zioten moduan, “garai gogorrek bizi ditugu”. Eta horregatik nabarmendu nahi izan zuten, “ez ditugu ahaztuko gaur omentzen ditugun pertsonak eta beste askok kargu publikoetatik

egindako lanak. Gizon eta emakume hauek erakutsi dute politikari guztiak ez direla berdinak, posible dela herritarrei gizarteak aldatu eta hobetzeko emandako hitza betetzea, konpromisoak betetzea nahiz eta presio oso gogorrek jasan. Milesker zuei! Gipuzkoako jendar-tearen onena eta esker ona merezi duzue, milesker!”, helarazi zioten, txalo artean oholtza gainean bildu zuten lagun taldeari.

Ainhoa Intxaurrendieta: “Berriro ere geldituko dugu”

Jasotako babes eta begiruneagatik eskertua agertu zen aitortza ekitaldiko protagonistetako bat, GHK-ren lehendakari ohi Ainhoa Intxaurrendieta, “urteotan jasotako babes eta begirunea” dela eta. “Gogorra izaten ari da, baina zuen babesarekin tinko eta aurrera egingo dugu zalantzarik gabe”. Mezu bat

ere helarazi nahi izan zien Iñaki Errazkini eta berak bizi duten egoeran jarri zituztenei. “Soldatak enbargatuko dizkiguzue, behar bada etxea ere kenduko diguzue, etorkizuna lapurtu nahi diguzue. Baina egindakoarekin harro, harro gaude!”.

Egoera latza dela, une gogorrek bizi ditugula adierazi

zuen, baina argi zioen, “badakigu zeintzuk ditugun aurrean”. Eta zioenez, “badakigu, antolatuz gero, tinko eta ozen ezetz esaten eta oraindik gure esku dago mehatxu hau geratzea. Beti esaten dugun moduan, ez Zubietan, ez inon!”. Hainbatetan frogatu bezala, herritarrok nahi badugu egin dezakegula nabarmendu du,

eta ardura ere badugula, “ezin diegu egiten utzi”. Argi zioen, “borroka egin dezagun gugatik eta gure ondorengoengatik”.

2013an erraustegia geratzea lortu bazen, “berriro ere geldituko dugu, gure amonen etxeak iraunen du zutik, gora Zubietan!” adierazi zien ekitaldian bertaraturikoei.

Ertzaintzak indarrez eragotzi nahi izan arren, zero gunera heldu zen buzo zurien martxa

Oztopoak oztopo, helburua bete zuten. As-teburuan Zubietan ospatu zen Iraultza Txikien Kanpaldia borobiltzeko, Gipuzkoa Zutik mugimenduak antolatuta, buzo zurien martxa jendetsua igo zen erraustegira. Plazatik abiatu eta gora, errausketaren zero gunera abiatu ziren bi zutabeetan banatuta, errausketaren aurkako aldarriak ahotan, baina bizipoza galdu gabe.

Obrak egiten ari diren eremu parera gerturatu zirenerako, Ertzaintzak osatua zuen hesiarekin egin zuten topo martxako kideek. Ezin izan zuten aurrera egin, ertzainek eragotzi baitzieten. Guztionak izan eta eraikitzen ari diren erraustegia inguratzen duten mendi bide denak itxi zituzten segurtasun indarrek.

Hainbat zauritu

Eta hau nahikoa ez eta indarra ere baliatu zuten gerora, martxa baketsuan parte hartzen ari zirenen aurka. Ertzaintzak, erdaraz kasu gehienetan, denonak diren herri bideetatik, hondatzen hasiak diren Zubietako



Obrak egiten ari diren eremu parera gerturatu zirenerako, Ertzaintzaren hesiarekin egin zuten topo martxako kideek. Irudi gehiago: noaua.eus

BIDEA ITXITA

“Erraustegia inguratzen duten mendi bide denak itxi zituzten segurtasun indarrek”

paraje ederretatik, menditik alde egiteko exijitzen hasi ziren. Buzo zuriak mugitzen ez zirenez, indarra baliatu zuen Ertzaintzak modu baketsuan ziren martxa kideen aurka. Hainbat lagun zauritu zituzten, borra, golpe eta bultzaden ondorioz.

Lurrez nahiz airez kontrolatu zituen Ertzaintzak Zubietan

gainera igotako manifestariak. Helikopteroz, nahiz erraustegiaren bueltan herri bide guztietan jarriak zituzten agenteen bidez. Kamerez grabatu zituzten manifestariak. Ertzaintzak jarrera oldarkorra erakutsi zuen bistan denez, une batean baino gehiagotan, guztiz jarrera baketsu eta aldarrikatzailea adierazten ari ziren buzo zurien aurka.

Salaketa, plazara

Halere, ezin izan zuten martxa eragotzi. Beste behin, guztion poltsiko eta osasuna kaltetuko dituen erraustegiaren aurkako salaketa plazaratzea lortu dute buzo zuriek, errausketaren zero gunean bertara igota.

Gainerako proiektu inposatuaren aurka

Erraustegiagatik soilik ez, Zubietan gainean kokatu asmo dituzten gainerako proiektuen aurkakoa ere izan zen irailaren 23ko martxa. “Gurretzat horiek ere inposaketak dira. Makroproiektuak aurrera doazela ikustarazten saiatzen badira ere, ez gara etxean geratuko. Ez dituzue zuen tximiniak piztuko!”, adierazi dute Gipuzkoa Zutik mugimendutik.

Kuartelaren inguruko mozioa

Iraila hasieran Donostiako Udalak Espainiako Gobernuari, militarren kuartela Loiolatik Zubietara lekuz aldatzea proposatu zion. Leku aldaketa honi uko egin, desmilitarizazioaren bidean sakondu eta zubietarren etorkizuna zubietarren esku uztea eskatzeko mozioa aurkeztekoa zen Usurbilgo EHBildu, astearte honetako udalbatzarraren osoko bilkuran. Xehetasun gehiago, datorren astekarian.

Gipuzkoa Zutik: “Ukiezinak ez direla erakutsi dugu”

Ertzaintzak erraustegiaren aurkako buzo zurien martxan agertutako jarrera salatu zuen Gipuzkoa Zutik mugimenduak martxa amaieran. Saiakerak egin arren, “ez digute pasatzen utzi” zioten Ertzaintzari buruz. Pasatzen utzi ez eta “herritarren kontra jo dute”, gaineratu zuten. “Jende pilo erori da lurrera. Inolako konplexurik gabe jo dute jendea, zauritu desberdinak egon dira”.

Baina oztopo eta jarrera oldarkorren gainera, erronka

bete ahal izan zuten. “Hara iristea lortu dugu, eta agerian uztea beraien negozioa zer indarkeriarekin eta ze gogoz defendatzen duten”.

Joan den igandeko martxarekin, “beste Euskal Herria bat irudikatu dugu, desobedientzia ekintza ikusgarri batekin. Ukiezinak ez direla erakutsi dugu”. Eta iragarri dutenez, aipatu ekimen hau “ez da azkena izango, haien lotsa guztiak mendi honetan eta herri honetan kokatzen segitzen jarraitzen badute. Bidean jartzen diz-

kiguten inposaketan aurrean, alternatibak eskaintzen jarraituko dugu”.

Erraustegiko lanak oso aurreratuak direla ikusi ahal izan zuten buzo zurien martxako partaideek. Nabarmentzen zuten moduan, “urte baten buruan korrika eta presaka ustelkeriaren bitartez eraikitako erraustegia” bisitatu ahal izan dute. Eraikinak hormak kolore berdekoak ditu. Baina Gipuzkoa Zutik mugimenduaren esanetan, “kolore berdeak ez du ustelkeria hori ezabatzen.



Zauriturik izan zen igandeko martxan.

Kolore berdeak ez du kalte ekologikoa estaltzen. Kolore berdeak ez gaitu engainatzen”.

“Utzi bizitzak kutsatzeari! Erraustegia gelditzera goaz!”

Erraustegiak sustatzen dituzten enpresa eta eragileek irailaren 20an eta 21ean Bilbon egin zuten kongresuaren aurka mobilizatzerara irten ziren herritarrek. Guggenheim museo atariraino eramán zuten errausketaren aurkako aldarria. Eta gertuago, Ernaik Usurbil nahiz eskualdeko ehunka gazte bildu zituen irailaren 20an, goizez, Lasarte-Orian barrena egin zuten manifestazioan.



Irailaren 20ean, manifestazioa egin zuten Lasarte-Orian barrena.

ERNAI

“Erraustegia egungo sistema kapitalista heteropatriarkalaren ikonoa da”

Ikasgelak utzi eta kalera aterarazi zituen mobilizazioa Bugatin amaitu zuten, erraus-tegirako obretara igotzeko sarbi-dearen ondoan, bidean zehar nahiz amaieran, ozen plazaratu zituzten hiru aldarriren bueltan. “Utzi bizitzak kutsatzeari! Erraustegia geratzera goaz! Gazteon oraina borrokan da!”

Gogorarazi zuten, “erraustegia egungo sistema kapitalista

heteropatriarkalaren ikonoa da, gutxi batzuen etekin ekonomikoa jartzen baitu gu guztion bizitzan gainetik”. Horren aurrean, “Gipuzkoako herritarrok ez dugu proiektu txikitzaile honen aldeko apusturik egiten”.

Beste bizimodu baten aldeko apustua egin beharra dagoe-

la adierazi zuten, “gure bizitzak kutsatu nahi dituztenen aurrean”, bizitzaren aldekoa. “Euskal Herrian bizi nahi dugulako, maskarilak kendu eta erraustegia geldituko dugu; zuen inperioa hankaz gora jartzeko lehen pieza botako dugu. Gurekin jai duzue!” adierazi zuten.

Gazte Bira

Bide batez, erraustegia erakitzen ari diren langileen prekarietatea ere salatu zuten. Gazteriak ere bizi duen errealitate hau plazaratzeko urriaren 11, 12 eta 13an Hego Euskal Herriko hiriburuak zeharkatuko dituen Gazte Biran parte hartzea animatu zuten. Urriaren 12an helduko da Donostiara.

Informazio gehiago: ernai.eus

Iraultza Txikien Kanpaldia, hausnarketarako plaza



Zubietako iraultza txikien kanpaldia.

Konplizitateak eraiki, elkarrekin hausnartu, konspiratu, egin daitekeen irudikatu eta alternatibak praktikan jartzen, bizipozez eta giro ederrean eman dute asteburua, Zubietako Iraultza Txikien Akanpaldian parte hartu dutenek.

Eraikitze lanak, aurreratuak Irailaren 23an errausketaren

zero gunera egindako martxan ikusi genuenez, erraus-tegiko lanak oso aurreratuak dituzte jada. Aldaketarik edo atzerapenik ez bada, 2019ko uda parterako martxan izan nahi du erraustegia Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eta erraustegiaren bueltan kokatuko diren gainerako azpiegiturak ere bai.

Sevillatik ere atez atekoa ezagutzera etorriak



Aldundiko nahiz mankomunitateetako ordezkariak izan dira Usurbilen.

Usurbilgo hondakinen kudeaketa eredugarria da ez bakarrik herri, eskualde, Gipuzkoa edota Euskal Herri mailan, baita urrunago ere. Jakinmina eta interesa pizten jarraitzen du, herri hau zero zabor norabidean jorratzen ari den bideak. Horren lekuko ondoko argazkia. Duela astebete, Sevillako Al-

dundiko eta mankomunitate ezberdinetako teknikari eta ordezkari politikoak bisitan izan genituen Usurbilen. Hondakinen bilketa erdua, atez atekoa edota konpostaguneak ezagutzeko aukera izan zuten Usurbilgo Udalaren eskutik, herrian barrena egin zuten bisita gidatuan zehar.



2018
San
praiiku
gehigarri berezia



ELIZA
ZARRA



Aginagako
eskolako ikasle eta
irakasleek jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!




**ONDO PASA
SAN PRAIXKUAK!**

E /S AGINAGA
N- 634 P.K 7,6 AGINAGA
www.gureakzerbitzuak.com



URRIAREN 4an
12:00tan
IREKIKO DUGU!!!



**sekaña
ERRETEGIA**

AGINAGA • © 943 362 773 - 667 694 769



URDAIRA

Sagardotegia

**ESKATU SAGARDOA!
ONDO PASA
JAIETAN!**

AGINAGA 943 37 26 91

Aginagako Eskolaren festa, berezia izango den ikasturtearen abiapuntu

Ikasturte berezia dute honakoa Aginagako Eskolakoek. Gogoan izan, 2019ko Eskola Txikien Festa Aginagan ospatuko da. Eguna finkatua dute, ekainaren 9an izango da jaialdia. Prestaketa lanak martxan dituzte jada. Jendaurreko lehen ekitaldia festetarako iragarri dute. Urriaren 6an (12:30ean) urtebete barrurako antolatzen hasiak diren jaialdiko irudi edo logotipoa aurkeztuko dute.

Giroitze horren testuinguruan ospatu zen hain zuzen joan den larunbatean, Aginagako Eskola Txikiaren festa eguna. Denetarik objektu berrerabi-



Larunbatean, arratsalde partean, dantzan aritu ziren frontoian.

liekin osaturiko jolas parkeak eman zien hasiera guraso elkarteak antolaturiko ekime-

nei. Berrerabilpena bultzatuz, material ezberdinek bizi luzea izan dezaketela argi erakutsi

ziguten Aginagan. Antzerki, bazkari eta txokolate janak errobildu zuten eguna.



Denetarik objektu berrerabiliekin osaturiko jolas parkeak eman zion hasiera guraso elkarteak antolaturiko egunari.

Azken akelarrerako prestatzen

Iaz 30 urte bete ziren Usurbilgo frontoian “Gauero” diskoa zuzenean grabatu zutenetik. Urtemuga honen harira, pare bat kontzertu ematea bururatu zitzairen. Burutazioak ordea, aurreikuspen guztiak gainditu ditu. Kontzertu sorta bat eskaini zuten iaz, zaletuen eskakizunei erantzunez beste hiruzpalau aurten. Eta orain bai, itzulerako bira amaitutzat jo dute. Azken saiorako, bizipen ugari eta oroitzapen gozo gehiago dituzten Aginagako jaietako plaza hautatu dute. Azken kontzerturako prestatzen ari den Akelarre taldeko kide baterano Markos Juaristi elkarrizketatu dugu lerrootan. Gogoratu, sarrerak Usurbilgo Aitzagan, Aginaga sagardotegian eta Orioko Kolon Txiki tabernan eskura ditzakezue.

NOAUA! Aginagakoa azken kontzertua izango da, behin betiko agurra beraz?

Markos Juaristi: Gure asmoa, iaz emandako kontzertuak eskaintzea zen. Baina hainbat herri eta komisio kontzertu eske geratu ziren. Hala hasita, sekula ez genuela bukatuko pentsatu genuen. Gainera 11 musikari ginen bi teknikarirekin eta 13 pertsona ados jarri beharrak zeuden. Bakoitzak bere ibilbide profesionala du



Akelarre musika taldekoek Oialumen jo zuten maiatzaren 20an. Argazkia: Urola Kotsako Hitzza.

**MARKOS JUARISTI,
AKELARRE**

“Aginaga izan da leku bat urtero izaten ginena bere garaian, urriko jaietan”

eta bere konpromisoak. Nahiko zaila ikusten genuen. Baina batzuk gogotik saiatu ziren eta bukaera emateko, azkenean aurtengo hiruzpa-

lau kontzertu hauek egitea erabaki dugu.

Eta Aginagakoarekin kito beraz.

Beti daude zaletu batzuk zergatik bukatu? galdetzen digutenak. Badira urtean kontzertu bat edo bi izatea eskatzen dutenak. Batzuk pentsatzen dute urtero elkartzeko asmoa dugula. Gure asmoa ez da hori, Aginagako kontzertuarekin bukatutzat ematea baizik.

Iazko itzulerarekin argi geratu da, zaletuek mundua mugi dezaketela?

Bai, gainera sare sozialekin gaur egun beste modu batera komunikatzen gara. Inpaktu potente bat dugu. Hasten dira zaletuak batak besteari burua berotzen, elkar animatzen dira. Batzuk ikusten dute, kontzertuetarako sarrera guztiak saltzen badira errentagarria aterako dela. Azkenerako sokatik lotu eta tira egiten dute.

“Agurrerako leku aproposa da Aginaga”

NOAUA! Aginagan azken kontzertua. Esanahi berezia du agurrerako plazak? Edo hala suertatu da?

Markos Juaristi: Hala suertatu den arren, Aginaga izan da leku bat urtero izaten ginena bere garaian, urriko jaietan. Herri eta leku batzuk gehiago markatzen zaituzte. Agurrerako leku aproposa da.

Lotura estua izan duzue Usurbilekin ere. Iaz bete ziren 30 urte, zuzeneko disko bat grabatu zenutenetik frontoian. Nola oroitzen duzu une hura?

Urtemuga horretatik sortu zen oraingo itzulera. Disko grabazio hartatik 30 urte bete zirela eta, ondo legokeela berriz halako zerbait egitea.

Azkeneko zortzi musika-

riak eta garai hartako 3 elkartu eta revival txiki bat egitea. Garai hartako errepertorio zabalagoa egitea pentsatu genuen. Planteatu genuen Usurbilen baina ez zen ateratzen eguna.

Garai hari keinu bat egingo al diozue Aginagan?

Bai. Garai hartako boskotea

agertuko gara eskenatokian eta saiatuko gara lehengo bertsio horiek ezpiritu berdinarekin egiten. Helduagoak gara orain eta orduan beste txispa eta energia izaten genuen.

Baina bai, orain pentsatzen dut nik lauzpabost kanta garai hartakoak abestuko ditugula.

“Jarraitzaile fidelak izan ditugu”

NOAUA! Duela 30 urte Usurbilen grabaturikoak oihartzuna izan zuen taldearen ibilbidean.

Markos Juaristi: Gure jarraitzaileen artean disko hartako abestiak oso estimatuak izaten ziren. Disko hark iraun du urteetan zehar, hor egon dira beti plazetan. Beti harre-ra ona izan dute. Esker oneko kanta izan dira horiek.

Zuena ibilbide luzeko taldea izanik, betiko jarraitzaileak alboan izan dituzue itzuleran, baina haiei lehen aldiz zuzenean entzun zaituzten gazteak batu zaizkie. Nola bizi duzue belaunaldi nahasketa hau?

Bitxia da. Lehen ere, plazetan adin guztietako jendea egoten zen sarritan. Gure aurrean zeuden gazteak ezkondu haurrekin etortzen ziren, eta gero, haur horiek gurasoei esker entzun dute errepertorio hori. Harridura sortzen zigun eskenatokitik gazte eta nerabeak ikusteak, eta abesten gainera. Garai bateko jarraitzaileen seme-alabak izango dira? Harridura sortzen dizu. Baita denak mugikorrek grabatzen ari direla ikusteak. Plazak argi puntu txuriez ikusten dira, nola aldatu den. Pentsatzen dugu, gozatzen ariko direla uneaz, gero gozatu nahi dute grabazioarekin edo Akelarreren kontzertuan egon direla erakutsi.

Ordutik hona, plaza giroa aldatu da noski?

Lehen pare bat tragorekin gozatu zuten bere modura. Orain denek mugikorrek. Badirudi desagertu behar gabela bizi osorako eta aprobetxatzen ari direla azken segunduak edo minutuak mugikorrek iruditan biltzeko. Gazteak abesten ikusteak harridura sortzen digu. Entzun dute hor ibili gabela burrunba



Urriaren 6an esango dute agur, Aginagako festetan. Irudia, Akelarreren facebook sare sozialetik hartua.

**MARKOS JUARISTI,
AKELARRE**

“Usurbilen grabatutako diskoko abestiak oso estimatuak izaten ziren”

egiten bere garaian eta kuriositatez begiratzen dute.

Pozgarria izan behar du, hainbeste urte pasa ostean, zaleak zuetaz ez direla ahaztu ikustea.

Hunkigarria da, kanta berriro jotzeagatik jendeak nola eskertzen gaituen ikustea eta taldea berriz batuta agertzea. Ikusten dugu egin dugun horrek zerbaiterako balio izan diela batzuei, bizia alaitu diote uneren batean. Oroitzape-

nak ekartzen dizkie burura. Orokorrean jendea oroitzapen onekin gogoratzen da, hala azaltzen dizu aurpegian. Estima hori sentitzen dugu. Erantzun hori herri ezberdinetan ikusi dugu. Jarraitzaile benetan fidelak izan ditugu. Zaletu gehiago edo gutxiago izan, gogo eta kalitate berdinarekin saiatu izan gara beti barruan duguna ematen.

“Beste bat arte”

NOAUA! Abesti bat agurrerako?

Markos Juaristi: Kanta asko etortzen zaizkit burura. Kanta sorta bat esango nuke. Oroitzen dut diskoa grabatu genuenean Usurbilen, jendearen erantzuna zuzenean, indar harekin, frontoiko soinu hark egiten zuen efektua. Jende guztia bat eginda.

Mikrofono aurrean, agurtzeko unea. Zer esan eta nori?

Lehenengo jendeari eskerrak eman bihotzez. Esan barruan dugula estima hori sartuta, eskertzekoa dela. Baina sekula ez dugula esango agur. Baizik beste bat arte. Ondo ibili bitartean eta tokatzen bada, ikusiko gara berriro.

Agurraren ostean, nola nahi zenuke oroitzapen izatea Akelarre?

Pentsatzea, zintzotasun, umiltasun eta inongo prententsiorik gabe ahalik eta on-

doen, gogotsu egiten saiatu ginela geure mailan eta geure garaian.

Garrantzia berdina ematen geniola, publikoan bi pertsona edo bi mila zeudenean. Euskararekin konprometitu ginen eta azken egunera arte mantendu genuen hori. Beste hizkuntzetan, ingelesez edo frantsesez jarduteko eskaintzak izan genituen. Baina esan genuen gure bidea hau zela, hemen jotzen genuela, hemengoentzat.

Aginaga suspertzera datoz San Praixkuak

Agur eta estreinaldiekin datozkigu 2018ko Aginagako jaiak. Hurrengo bi asteburuetarako hitzordu eskaintza zabala prestatu dute, inoiz baino gehiago guztiengan pentsatuta, eta aginagar nahiz bisitari ororentzat. Auzolanean bideratzen dituzte San Praixkuak. Gazte talde bat da antolaketaren ardura bere gain hartzen duena, baina laguntzaile presturik ez dute falta, gazte nahiz heldu gehiago baten zaizkie auzolanera.



Auzolanean bideratzen dituzte San Praixkuak.

Guztiak elkartuko ditu txupinazoak. Iaz estreinakoz egin eta polita suertatu zenez, Eliza Zahar atariko balkoitik jaurtiko dute aurten berriz, pregoia eta brindisa ere izango dituen suziria. Falta direnak omentzeko tartea ere hartuko dute.

Urriaren 5ean, "Oreina" filma Eliza Zaharrean

Azken unera arte egitarauan moldaketak egin beharrean aurkitu da Jai Batzordea. Baina ahaleginak merezi izan du. Duela urtebete, garai honetan, Aginaga grabaleku handian bilakatu zuten "Oreina" filmeko arduradunek. Dakizuenetz, Donostiako 66. Zinemaldian proiektatu ostean, zine aretoetan estreinatuko dute ostiral honetan bertan (irailaren 28an). Baina adi, Jai Batzordeak Koldo Almandozen lan berria Aginagan proiektatzea lortu du, urriaren 5ean, gaueko 22:00etan Aginagako Eliza Zaharrean. Pozik dira albistearekin.

"Herrian grabatu zuten, herriarrek harreman oso ona egin zuen taldeak. Emaizta herriera ekartzea oso polita izango zela iruditzen zitzaigun. Beraiek ere prestutasun guztia agertu dutenez, ikaragarri gustura gaude. Ez genuen espero", adierazi dute Jai Batzordetik. Aginagako hainbat txokotan grabatu zuten "Oreina". Erribe-

URRIAK 4 OSTEGUNA

Iaz polita suertatu zenez, aurten ere Eliza Zahar atariko balkoitik jaurtiko dute txupinazoa

ran, Mapil inguruetan... Seka-ñako otorduez gozaten zuten filmeko lan taldeak. Hainbat aginagarrekin eta Aginagako txokoekin harreman ziren. Etxean dutena are gehiago estimatzeko aukera izango dela adierazi digute Jai Batzordetik urriaren 5eko proiektzioan.

Eskolaren aldeko laguntza bilketa

Batzuk etorri eta besteak joan. Estreinaldi batetik, agurrera jauzi egingo dugu biharamunean, urriaren 6an. Akelarrek

azken kontzertua eskainiko du Aginagan. Jai Batzordetik garraio publikoa baliatzea deitu dute. Oro har jaietan, eta bereziki, gau horretan. Gogoan izan, Lurraldebusen ostiral gauean zenbait autobus zerbitzu eskaintzen dituela. Larunbatetan gau osoan zehar.

Kontzertuotara garaiz joan eta jan edanik ez zaizue faltako. Urriko lehen bi larunbat gaueko kontzertuen aurretik, bokatak jarriko dituzte eskuragarri. Hortik ateratako laguntza, 2019ko ekainaren 9an Aginagan ospatuko den Eskola Txikien Festara bideratuko da. Gurasoen laguntza izango dute bokaten salmentan. Eskola aipatuta, jaialdi horri begira landu duten irudi edo logoa ere San Praixkuetan aurkeztuko dute jendaurrean, urriaren 6an.

Hiru txosna gune San Praixku jaietan

Jan edanarekin segita, hiru txosna gune izango dituzte San Praixkuek; bat frontoian, frontoi pareko plazaratxoan karpak kokatuko dute, eta azkenik Eliza Zaharra. Betidanik egin dute, gastronomiari lotutako jai hitzorduetan etxeko produktuen aldeko apustua. Urrats berri bat ematera doaz aurten, txosnetan. Elikagaietan soilik ez, gertuko edariak dastatzeko aukera eskainiko dute.

Donostiako Gross eta Hernanin ekoizten duten Otsaihen garagardoak dastatzeko aukera izango da, aurtengoan ahalik eta ordutegi zabalenean irekita mantendu nahi duten Eliza Zaharreko txosnan soilik. Ez baita ahaztu behar, Arrate jubilatutako elkarteko taberna itxita dago.

Belaunaldi arteko loturak estutzen

Auzolanean berritu eta txukundu duten Eliza Zaharra dinamizatzen laguntzen dute jaiak, baina San Praixkuetatik haratago elkargune gisa dinamizatzen segitzeko asmoa dute. Belaunaldi arteko transmisioa lantzeko besteak beste.

Katea eten ez dadin, badeute jaietan hitzordu berezi

bat, bereziki aginagarrentzat diseinatua duten urriaren 12ko hitzorduen artean; eguna esnaraziko duten oilasko biltzaileak. Helduei goizean goiz ateratzeko gonbita egiten zaie. Haur eta gurasoentzat eguerdirako finkatu dute taldera batzeko hitzordua Mapilen. "Ohitura galdu ez dadin, transmisio lana egiteko egun polita da. Haurrei ilusioa egi-

ten die".

Erasorik gabeko jaiak

Eraso sexistatik gabeko jaiak nahi dituzte Aginagan. Eredu honetan bideratu duten protokoloa ere plazaratuko dute laster, "erasoen aurrean nola erantzun jakin eta jendeak inolako erasorik ez dela onartuko jabetu dadin", Jai Batzordetik aditzera eman dutenez.



IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.



- FATXADAK ETA TEILATUAK
- ERAIKUNTZAK
- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- URALITA KENTZEKO ENPRESA BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



Aranburu
Lore-haztegia

Ondo pasa jaietan!

EGUNERO IREKITA!

607 61 64 16 AGINAGA



serigrafiaiosu
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



Ondo pasa San Praixkuetan!





KARABANAK
Bigarren eskuko salmenta, konponketak eta mantenua
24h hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

NAUTIKA
Salmenta, konponketak eta mantenua
24h hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

Intxaurreta z/g, Aginaga, Usurbil - Tel.943 362 660
www.norriaanautika.com - info@norriaanautika.com

Oilasko biltzaileen eguna, urriaren 12an



Urriaren 12an, goizeko seietan abiatuko dira. Soziedadean elkartuko dira. Oilasko biltzaile gaztetxoak ordea eguerdiko 12:00etan irtengo dira Mapildik.



ondo pasa
jaietan!



Mutiozabal etxea 17, AGINAGA 943 36 10 81 atxega@atxega.com www.atxega.com



VDA. E HIJOS DE
**JERONIMO
IZAGUIRRE** S.L.



**Ondo pasa
jaietan!**



943 362 146 AGINAGA
www.mariscosizaguirre.com



**Ondo pasa
San Praixkutan!**



Angulas Mayoz s.l

AGINAGAKO ANGULAK
BEREZKO BIBEROAK



TOKI BERRI Z/G AGINAGA 943 36 15 94

Bi asteburu, hamaika deialdi Aginagan



Urriaren 7an igandearekin, herriko dantzari txikien erakustaldia.

Urriak 4, osteguna: San Praixku Eguna

- 11:00 Meza nagusia.
- 12:00 Jubilatuen hamaiketako Aginaga Sagardotegian, bertsolariek alaitua.
- 17:00 Txupinazoa Eliza Zaharreko balkoian pregoi eta brindisarekin, txanpaina gure kontu!
- Ondoren, poteoa eta buruhandi bizkor bizkorak.
- 18:00 XVI. Gizonezkoen pilota finala.
- 19:30 Sardina eta sagardo dastaketa musikaz alaitua.
- Bitartean, XXXVI. Toka Txapelketa herrikoia.

Urriak 5, ostirala: Umeen Eguna

- 10:00 Umeen jokoan hasiera.
- 13:00 Umeen bazkari goxo goxo, mmm...
- 14:30 Umeen karaokea, eta noski, eguraldi bikaina gure zain.
- 16:00 Puzgarriak.
- 18:00 Txokolate banaketa eta buruhandi bizkor bizkorak.
- 18:30 Ur zezenaren entzierroa, sagardotegitik. Ondoren, apar festa!

- 22:00 'Oreina' filmaren proiektzioa Eliza Zaharrean.

Urriak 6, larunbata: Gora Herria Eguna

- 11:00 Txosna irekiera eta trikipoteoa hamaiketakoarekin Eliza Zaharrean.
- 12:30 2019an Aginagan ospatuko den eskola txikien festaren logoaren aurkezpena.
- 13:00 Kalejira Dj Bull-ekin.
- 14:00 Herri bazkaria. Sarrera: helduek 25 euro eta haurrek 12. Aginagako sagardotegian salgai. Ondoren, Elektropapo elektrotzaranga.
- Afalorduan, bokatak txosnan.
- 22:00 Dj Bull frontoian. Sarrera: 12 euro.
- 23:00 Akelarre frontoian. Sarrera: 12 euro.
- 02:00 Gozategi frontoian.
- 04:00 Dj Bull eta Dj Elepunto, Eliza Zaharrean eta karpan goizaldera arte.

Urriak 7, igandea: Erronka Eguna

- 9:00 Tiro platoa.
- 17:00 Herriko dantzari txikien erakustaldia plazan.

- 17:30 Herritarren arteko herri kirolak, gazteak helduen kontra!
- 18:30 Globo aerostatikoan igoerak egiteko aukera izango da plazan, alaa....
- 19:00 Piper frijitu eta sagardo banaketa herriko plazan.

Urriak 12, ostirala: Oilasko Biltzaileen Eguna

- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera soziedadetik, indarrak hartu ondoren.
- 12:00 Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildik.
- 15:00 Oilasko biltzaileen bazkaria frontoiko karpan.
- 17:30 Txan magoa.
- 18:30 Perkusio tailerra.
- 20:00 Patata tortila txapelketa.
- 21:00 Gazte afaria karpan.
- 22:00 Andoni bakarlarria.
- 23:30 Oharkabe erromeria Eliza Zaharrean.
- 02:00 Dj Seymar.

Urriak 13, larunbata: Gaupasa Eguna

- 12:00 Molto-moto lasterketa.
- 13:00 Tira txinas jaurtiketa.

- 16:00 XXXVII. Mus Txapelketa Atarialde Elkartearen (izen ematea, 15:30-16:00 artean).
- 16:00 Partxis lehiaketa haurrentzat ludotekan.
- 17:00 Larrian Gozo taldea Eliza Zaharrean.
- 19:00 Elektrotxufla elektrotzaranga.
- 24:00 Los Zopilotes Txirriaos eta Laiotz.
- 04:00 Dj Txankleta eta Dj JoTaTxo.
- 07:30 Elektropapo elektrotzarangaren laguntzarekin errefus-bilketa!

Oharrak:

- Jubilatuen eskulanak ikusgai urriaren 4ean eta 7an goizez eta urriaren 4, 5, 6, eta 7an arratsaldez Apaizetxean.
- Aginagako Jai Batzordea ez da arduratzen egun hauetan gerta daitezkeen ezbeharrez.
- Usurbilgo Udalak babesturiko festak direnez, erantzukizun zibilararen aseguru poliza ere Udalak bereganatzen du.
- Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.



aginaga

San Praixku zoriontsuak opa dizkizuegu!!!

Sagardotegia



URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO SAGARDOA TXOTXETIK!

Berezitasuna; Sagardotegiko menua
Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrainekin.
Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...
Ezkontzetarako jangela egokitua.
Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfno-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
Info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

HOTEL BERRIA AGINAGAN

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak:
aire girotu eta berogailua, TV, WIFi, bainugela
konpletoa...

Diseinu moderno eta funtzionala

Energia berriztagarritz (geotermia) baliatzen
da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.

Lan bidaia, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi
duenarentzat leku ezinhobea.

Tfno-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
Info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

Hotela * *



José María Larburu
Garraiatzailea



LARBURU

gruarekin ere egiten dugu lan

Garraioak

Larzusta z/g. AGINAGA



943 36 17 35 · 651 703 237

Jokalariena, Usurbil Cup-en amaiera



Irailaren 22an borobildu zuten aurtengo edizioa, azken neurketekin, bazkariarekin eta sari banaketarekin.

Talde argazkian kabituz ezinik ziren. Ez da gutxiagorako. Herri mailan parte hartze gehien sustatzen duen ekimenen ar-

tean dugu Usurbil Cup. Irailaren 22an borobildu zuten aurtengo edizioa, azken final saio, bazkari eta sari banaketarekin.

Segidan dituzue kategoria bakoitzeko sailkapeneko lehen postuetan geratu eta kopak jaso zituzten taldeen argazkiak, erretiroa hartu be-

rri duen Imanol Agirretxeren horma irudiaren azpian. Eta baita futbol txapelketan parte hartu duten taldeen zerrenda ere.

Sarituak eta partehartzaileak

Usurbil Cup sarituak

LH 4-5 neskek:

- 1.- Ivan Perez.
- 2.- Aratz Erregetgia.

LH 3-4:

- 1.- Atallu Autoak.
- 2.- Itzira.

LH 5-6 mutilak:

- 1.- Mur.
- 2.- Aizpurua okindegia.

Infantil mutilak:

- 1.- Perkuak.
- 2.- Laurok.

LH 5-6 Infantil neskek:

- 1.- Aitzaga.
- 2.- Goieko.

Partehartzaileak

LH6 infantil neskek:

Maiur, Aitzaga, Goieko, Marije, Bertako Igogailuak eta

Txiriboga.

Infantil mutilak:

Artzabal, Zakilixut, Zeta Skuad, Laurok, Perkuak, Goieko.

LH 5-6 mutilak:

Suzko Taldea, Futbolari Batsatiak, Opil Goxo, Aizpurua Okindegia, Mur.

LH 4-5 neskek:

Txalaka, Itzira Eraikuntzak,

Climata-T, Ivan Perez, Aratz Erregetgia.

LH 3-4:

Kaffa, Txirinbolo, Itzira, Atallu Autoak, Gerlariak, Zonbiak.

Minibenjaminak:

Incoman, N.I, Otar Goxo, Trumoi, Prest, Arrospide Banaketak, Suziriak.

Antolatzailea: Usurbil F.T

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

txirriStra


TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66





URRIAK 4

GIPUZKOAKO PENSIONISTEN GIRAREKIN BAT EGINEZ



10:30

Ucin ondoko errotondan geratuko gara abiatzeko

10:45

Usurbilgo udalean bizi duhin baten aldeko eskaerak udalean sartu

11:30

ARGAZKIA TROIAKO PUNTU BELTZEAN
"Puntu beltzik ez! Usurbil seguru eta jasangaria orain!"

12:30

Lasarteko udalean bizi duhin baten aldeko eskaerak udalean sartu

Ondoren

Aginaga Sagardotegian bazkaria. Joan nahi izanez
gero Artzabaelen Gure Pakean eman izena



Usurbildik:
**GURE PAKEA
ELKARTEA**

Aginagatik:
**ARRATE
ELKARTEA**

Santueneatik:
**GURE
ELKARTEA**

Hipikan zaletu eta hezten

Txokoaldeko Lar Zaldiak klub hipikoak aisialdiari begirako irteerak antolatzearekin batera, formakuntza ere sustatzen ari da azken urteotan. Zaldi gainean ibiltzeko hezi eta maila egiaztatzeko prestakuntza eskaintzen dabil Silvia Simon. Lar Zaldiak-eko hezitzaile eta aztertzailearekin bildu gara.

NOAUA! Formakuntzaren aldeko apustua egin duzue, nolatan erabaki zenuten urrats hau ematea?

Silvia Simon: Formakuntza egiten hasi nintzen. Federazioetik ari dira ikastaroak egiten, irakasle bezala prestatzeko. Lehen ez zegoen prestakuntzarik. Ni Segoviara joan nintzen eta han bi urte pasa nituen. Orain teknikari bezala nabil. Gipuzkoan oso gutxi gaude, hiru bat edo. Gure asmoa, gure hipika geroz eta gehiago zabaltzea da. Duela lau urte hasi ginen formakuntzarekin. Lehenengo neguan aztertzaile izateko titulua ateratzea planteatu nuen. Negu osoan aritu naiz ikasten, duela bi hilabete gaintu nuen azterketa.

Zuk jasotako formazioarekin, zertarako zaude prestatua?

Edozein zaldizkori egiaztatu ahal diot duen maila. Galopa izeneko batetik zazpigarren mailara arteko azterketak daude.

Zuen eskaintza aisialdira bideratuagoa egon da.

Zaldi gainean ibili, gozatu eta pixka bat ikastea. Orain ikasleak animatuago daude, bakoitzak etxean bere diploma izateak ilusioa egiten die. Bere formakuntza akreditatu nahi duten 15 neska ditugu. Horregatik galopa azterketak egiten hasiko gara. Badira ziur aski hirugarren galopa azterketa gaintutako luketenak, badira batzuk ia ni baino hobeto moldatzen direnak zaldi gainean.



Lar Zaldiak klub hipikoa formakuntza ere sustatzen ari da azken urteotan.

SILVIA SIMON

“Hernani, Andoain, Orio, Zarautz, Usurbil eta baten bat urrutiagotik ere etortzen da ostiraletan”

Zer moduz dabilta?

Gustura ibiltzen dira. Jada taldean dabiltzan lagun bidez, hala hasten dira gehienak. Zaldi heziketan hiru diziplina olinpiar daude: heztea, saltoa eta guztia. Horrez gain, “Raid”-ak egiten ditugu, maratoin antzekoak.

Hezten ari zareten neska taldearekin atera izan zarete txapelketetara?

Txapelketak egiten ditugu baina horretarako beraiek galopak behar dituzte. Galopa birekin

zenbait lasterketetan parte har dezakete. Bost bat neska daude laugarren galopa atera eta lehiatzen gustura dabiltzanak. Orain gehiagok ere nahi dute.

Zein da zaldi gainean aritzen hasteko abiapuntua?

Duela egun gutxi 83 urteko emakume bat paseatu dut, mailak berdin dio. Normalean jendea, paseo turistikoa emanez hasten da. Gustuko baldin badu, jendeak bono bat hartu eta ikastea proposatzen dizu. Batzuk bono batekin nahikoa dute eta bada jendea zaletuan bihurtzen dena.

Formazioa jasotzen segiz gero, ze ibilbide jorra dezakete?

Lehiaketena. Aukera piloak dituzte, olinpiarrek eta ez olinpiarrek. Diziplina asko daude eta bakoitzak irteera piloak ditu.

Adibidez Horseball liga egiten da, futbolekin bezala. Ni Raid-ean nabil. Neskek lehiatzen hasi nahi dute.

Hemen inguruan lehiatzeko aukera badute?

Bai. Gertuko txapelketak baliatzen ditugu, urrutira joateak gastu asko suposatzen baitu. Euskadin hasten gara gertu, denok taldean joaten gara egunpasa.

Zaletasuna nondik datorkie neska hauei?

25 bat neska edo izango dira. Usurbilgo lau lagun hasi ziren. Horren ondorioz lagunak ikastolara doazen beste lagunei esan eta jende gehiago etorri da. Hernani, Andoain, Orio, Zarautz, Usurbil eta baten bat urrutiagotik ere etortzen da ostiraletan.

Poni gaineko paseoak, umeari beldurra kentzeko

NOAUA! Hilaren 29an zer duzue?

Silvia Simon: Galopa bat mailari dagokion azterketa teoriko eta praktikoa antolatuko dugu. Teorikoa test modukoa da, zaldiaren gorputz atalei buruzkoa. Praktikoak nahiko erraza da baita ere, paso eta trosta ondo egitea.

Hiztegia euskaratzen ari za-

rete ezta?

Ikasleek hitz teknikoak erdaraz ikasten dituzte. Hitz gehienak, zaldiaren gorputz atalei lotutakoak euskaratu egin ditut. Hiztegi modukoa da, azterketa euskaraz egiteko. Federazioarekin hitz egin dut, ia norbaitek egin dituen azterketak euskaraz eta inork ez ditu egin eta animatu gara.

Zaldiaren ezagutza eta harremana bultzatu nahi duzue formakuntza ikastaro hauen bidez.

Adibidez, zortzi urtetik beherakoak ponietan ibiltzen dira. Ezin ditut zaldi gainera igo, oso txikiak dira. Poni gaineko paseoak umeari beldurra kentzen, konfiantza hartzen, harremantzen laguntzen dio.

Bertsotan, sagastietan barrena

Hipodromotik Zubietan barrena paraje ederretan osteratxoa eginez, eta bidelagun ezin aproposagoekin abiatu dute oraingoan, udazken partean itzuli den 6. Sagastiak Loretan zikloa. Geldialdietan saio ederrak eskaini zituzten Oihana Iguaran eta Andoni Egaña bertsolariekin eta Jakoba Errekondoren azalpen interesgarriekin. Amaieran, Iruin sagardotegian mokadutxoa eginez borobildu zuten irailaren 23ko bertso ibilaldia.

2018ko proposamen interesgarritz jositako 6. Sagastiak Loretan. Tartean, larunbat honetan (irailak 29) 20:00etan hasita Usurbilgo frontoian ospatuko den Euskal Herriko 4. Sagardo Txapelketa Herrikoia-ren final handia!

Afaltiarra epaile

Azken asteotan ospatu diren



Iruin sagardotegian, mokadutxoa eginez borobildu zuten irailaren 23ko bertso ibilaldia.

finalurrekoetatik sailkatu diren 12 sagardo dastatu ahalko dituzte final handi honen baitan ospatuko den afarira joaten direnek. Eta haiek, herritarrek izango dute beraz azken hitza. Beraiek erabakiko dute nor izango den txapelduna. Erraza da; afaritarako eseri, otorduaz gozatu eta edaten diren sagardoei 5-10 tarteko puntuazioa ematea izango da helburua. Afaritarra joan eta

epaile lanetan jardun nahi dutenek txartelak erosteko irailaren 28ra arteko epea duzue.

Afarian daudenek ez dute jakingo zein sagardotegitako sagardoa ari diren dastatzen, ezta nortzuk diren finalistak. Finalaren amaieran ezagutuko da zerrenda osoa eta txapeldunaren izena. 18 herrietako 41 sagardotegi ari dira parte hartzen aurtengo txapelketan.

6. Sagastiak loretan

Irailak 24-30, astelehenetik igandera

Sagar erakusketa iraunkorra Sutegiren erakuslehoan.

Zehaztasunak: "Sagardotarako erabiltzen ditugun 115 barietateren artean aukeraketa ikusgai".

Irailak 27, osteguna

19:30 "Sagarrari sukaldia dario" saioa Aitzaga Elkartean.

Zehaztasunak: "Dani Lasa, sukaldari ikertzailearen eskutik. Zuztarretik hazietaraino, sagarrak makina bat aukera eskaini diezazkiguke sukaldian. Fruitua, ozipina edo sagardoa bera, osagai erakargarriak dira platera gozo zein gaziei gure lurraren nortasuna kutsa dakiegun. Errezeta eta ideien errepa-so praktikoa egiteko aukera".

Irailak 28, ostirala

19:30 "Sagardoa bidegile" dokumentalaren proiektzioa Su-

tegin.

Zehaztasunak: "Urtean lau hilabetez, urtarrietik apirilera, euskal sagardotegiek milaka pertsona erakartzen dituzte, bertokoak zein kanpokoak. Tradizioa bete nahi dute denek: tortilla, bakailaoa, txuleta eta gazta jatea, eta txotxera deitzen duen ahotsa entzundakoan sagardoa edatea. Tradizio modernoak da hau, baina erro sakonak ditu. Dokumentalak bidaia moduan azalduko digu tradizio hau: ibilbide geografiko, kultural, teknologiko eta gastronomikoa izango da, ezustekoz bete".

Irailak 29, larunbata

20:00 Euskal Herriko 4. Sagardo Txapelketa herrikoia-ren finala Usurbilgo frontoian.

Bertako produktuekin sukaldaturiko menua:

-Basatxerri lontxeatua: basatxerri urdaiazpikoa eta txori-

zoa.

-Entsalada: letxuga, tomate, tipulina, oilaskoa eta arrautza egosia.

-Ajoarrieroa: bakailao ajoarrieroa tenperatura baxuan egositako arrautzarekin.

-Txuleta: txuleta parrillan erreta.

-Postrea: Idiazabal gazta sagar dultzearekin.

Prezioa: 32 euro.

Txartelak: irailaren 28ra arte salgai, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartean (info@sagardoa.eus - 943 336 811). Baita Usurbilgo Txiriboga, Bordatxo, Alkartasuna, Artzabal eta Zubietako Astiazaranen.

Egitasmoaren sustatzaileak: Alkartasuna Usurbilgo Base-rritarren Kooperatiba; NOAUA! K.E.; Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak; Sagardoa Route, gure jatorria; Sagardoaren Unibertsitatea; Usurbilgo Udala.

Merkataritza guneek eta industriak Usurbilgo ekonomian duten garrantzia nabarmendu nahi du

EAJk

Josune Urkola EAJ-PNVko udal taldeko bozeramaileak Usurbilgo enpresek udalean duten eragin ekonomikoaren inguruko txostena eskatu du udal erregistroan. "Zehazki, Urbil merkataritza guneak udalean duen eragin ekonomikoaren txostena eskatu du eta zenbateko diru sarrera duen Ondasun Higiezin Zergarengatik, Ekonomia Jardueren Zergarengatik eta obren eta merkataritza guneko ibilgailuen zergarengatik", ohar bidez jakinarazi duenez. Halaber, beste administrazio bidez kobratzen diren BEZa eta Sozietateen Zergak udaletxean duten eraginaz ere galdetu du.

Industria guneetan dauden lehen 10 enpresa garrantzitsuenen zerrenda eta udaleko diru sarreraren konputu osoan zenbateko eragin ekonomikoa duen ere galdetu du alderdi jeltzaleak. "Pentsatzen dugu beharrezkoa dela merkataritza gune honek eta baita ere herriko eremuetan ditugun beste enpresek gure herrian sortzen duten aberastasunaren berri jakitea. Baloreari jarri behar dugu merkataritza guneak eta industriak duten garrantzia Usurbilgo ekonomian. Denok dakigu industria eta merkataritza jardueren lan postuak sortzen dituztela eta ezinbestekoak direla herritarren etorkizuna bermatzeko, baina gutxitan jartzen gara pentsatzen gure enpresak diru iturri direla udalarentzat eta, beraz, guztiontzat", gehitu du bozeramaile jeltzaleak.

Berriki, EAJ-k aldeko botoa eman zion Gureak taldeak eta Elkar argitaletxeak Usurbilgo Zapategi eremuan ezartzeko asmoari.

Oihal beltzak erakusleihoetan, jokoan dugunaz ohartarazteko

Erakusleihorik gabe izan dira tabernak eta dendak joan den aste amaieran. Egun batetik bestera, oihal beltzez estaliak esnatu zitzaizkigun Usurbilgo taberna, dendak eta baita udal zerbitzuen erakusleihoak ere irailaren 20an. Ilun, triste. Bizitarik ez duen herrian biziko bagina sentiarazteko modua izan genuen, saltokiak irekiak egon arren.

Oihal beltzak mezu kezkarriak zintzilikatuak zituztela ageri zitzaizkigun; ia horrelako herria nahi dugun galdetzen zuten mezuak, galtzen dugun arte ez dugula jakiten zer dugun edo herrian erosteak handi egiten gaituela gogorarazten digutenak. Oihal beltzok eta mezuok, ia saltoki guztietan ikus genitzazkeen.

Biharamunean argitu zigiten zergatik zegoen Usurbil, erakusleihorik gabe. Beterriko udal eta merkatarik zein ostalariek elkarteek, tokiko merkataritza sustatzeko eskualdean abiatu duten sentsibilizazio kanpainaren baitan jantzi dituzte beltzez dendak eta tabernak. Ez bakarrik Usurbilen, baita eskualdean ere.

Irailaren 20tik 23ra oihal beltzekin estali zituzten herriko dendak eta taberna atariak, “herri triste eta bizirik gabekoak simulatuz”. Normaltasunez zabaldu zituzten ordea. Aste hasiera honekin etorri zen aldaketa. Guztiz kontrakoa irudikatu nahi izan zuten. “Dendak kolorezko globoekin apaindu dira eta kalera irten dira aurreko egunetako irudiaren aurkakoa plazaratzeko, eta herriari poza eta bizitza helarazteko”, egitasmo honen sustatzaileen esanetan.

Kanpaina honekin bat egin dute Usurbilek, Andoainek eta Astigarragak. Iaz egin zuten



Irailaren 20an oihal beltzez estaliak agertu ziren tabernak, dendak eta udal zerbitzuetako erakusleihoak.

KANPAINA DEIGARRIA

“Kanpainarekin bat egin dute Usurbilek, Andoainek eta Astigarragak”

Hernanik, baina joan den ostiralean ospatu zuten Merkataritza Festarekin bat egin zuten berriz dinamika honekin. As-

telehenetik aurrera saltokiak kolorez mozorrotzeko deialdiarekin bat egin zuten baita Lasarte-Oriak.

Ekimenak izan duen jarraipen nabarmenaren adibide, Usurbil. Egitasmo honen sustatzaileen esanetan, %75 pasatxokoa izan da. Denda txikiei erreparatuz gero, %90ekoa.

Ostiral honetan, elkarretaratze berezia

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak eta Usurbilgo gazte mugimenduak elkarlanean antolatu dute asteotan “Herria Xutan” zikloa, Usurbildik 600 kilometroira Valentziako Picasent espetxean segitzen duten Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga presoek eta haien urte eta erdiko haur Xuaren egoera plazaratzeko eta babesa adierazteko. Joan den astean, gai honi, motxiladun hurrez, sakabanaketaz, salbuespeneko legediaz mahai ingurua egin zuten Sutegin, motxiladun haurra izandako gazte batekin, Sara Majarenas preso ohiarekin eta Onintza Ostolaza abokatuarekin.

Datorren astekarian emango ditugu hitzaldi honen gaineko xehetasun gehiago. Lehenago, eta “Herria Xutan” zikloa borobiltzeko elkarretaratze berezia izango da ostiralean (irailak 28) 20:00etan Mikel Laboa plazan.

“Guztioi interpelatzen gaituen kanpaina da”

“Guztiok interpelatzen gaituen kanpaina da”, egitasmoa aurkezteko eskualdeko merkatariek elkarte eta udal ordezkariak Andoainean egin zuten agerraldian ziotenez. Zer hausnartua eman nahi duena. Batetik komertzioei beraiei, nabarmentzekoa baita kanpaina honen sustatzaileen esanetan, herri baten garapen sozioekonomiko eta kulturean duten ardura. Herritarrok ere kontzientzatu nahi gaituzte, jabetu gaituzten zer gertatuko litzatekeen baldin eta tokiko merkataritza desagertuko balitz. Zer eta zenbat dugun jokoan. Eta honenbestez, gure kontsumo ohiturek duten garrantziaz kontzientziaz nahi gaituzte “herri gune biziek eta ez hilek zer nolako garrantzia duten pentsaraz-



Eskualdeko merkatariek elkarteek eta udal ordezkariak agerraldia eskaini zuten Andoainean.

tea”. Herrian bertan erostea, “askotan aukera hoberena dela, gertuena duguna” ohar-tarazi nahi digute.

Eta erakundeei begirako kanpaina ere bada honakoa. Komertzioei animu mezuak helaraztetik haratago, “baber neurriak behar dituztela”

jabetu daitezten. Horregatik zioten, “erakunde guztiek serio hartu beharreko gai bat” dela honakoa. Eta dendari eta ostalariek egunotan erakutsi duten moduan, elkarlanean, batera lan egin beharra dagoela etorkizuneko erronkei heltzeko.

Pirinioetara asteburu pasa

Urriaren 12tik 14ra Hecho, Estanes, Aspe bilarak ezagutzeko aukera izango da Andatza M.K.T.-koen eskutik. 25 laguntzako lekua egongo da, Pico de la Cuta, Bisaurin eta Aspe mendiak igotzeko aukera eskainiko duen txangoan. Izen emateko urriaren 3ra arteko epea dago.



Izen emateko urriaren 3ra arteko epea dago. Argazkia: andatza.com

Prezioak:

■ Andatzako bazkideek: 66 euro (FEDME gehigarria dutenak), 72 euro (FEDME gehigarria ez dutenak).

■ Andatzako bazkideak ez direnek: 96 euro (FEDME gehigarria dutenak), 102 euro (FEDME gehigarria ez dutenak).

Ordainketak urriaren 3a baino lehen egin, kontu zenbakio-tako batean:

Rural Kutxa: 30080259163005430321.
Kutxabank: 20955069071068489805.
Informazio gehiago andatza.com atarian edo antolakuntzak urriaren 10erako 19:00etan Sutegin deitu duen bileran.

Oharra: Andatza M.K.T.-k antolatzen dituen irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. "Federatu gabe dagoe-

nari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin harremanetan jarri, andatza@hotmail.com helbidean. Komenigarria da izapidetza ahalik eta azkarren egitea".

Egutegi zuzena

Duela bi asteko aldizkarian, Andatza M.K.T.-ren zuzendaritzak 2018rako dituen konpromisoak beteta mendizaleen bilgunea utziko duela berri eman genizuen. Zuzendaritza taldea osatzera animatzen zituzten herritarrak. Hurrengo hilabeteotarako antolatuak dituzten txangoen zerrenda argitaratu genuen, baina zenbait datu oker eman genituen. Honatx eguneratuta, Andatza M.K.T.-k

udazken parterako antolatu dituen ekintzak:

■ Urriak 12-13-14: 3 eguneko irteera Pirinioetara:

■ Urriaren 12an: Santa Ana-Gabardito-La Cuta-Lizara.

■ Urriaren 13an: Lizara-Bisaurin-Estanes-Candanchu.

■ Urriaren 14an: Candanchu-Aspe-Lizara.

■ Azaroak 11: Osondo-Bidarrai.

Mendi Astea:

Azaroak 22, 23: proiektzioak Sutegin.

Azaroak 25: mendi irteera (Alkiza-Hernio-Asteasu).

Informazio gehiago:

andatza.com

Antolatzailea:

Andatza M.K.T.

Pilota partidak

Usurbilgo frontoian

Irailak 28 ostirala, 19:00

Eskuz Binaka Nagusiak

Ohorezko Maila

Pagazpe (Ugalde-Exposito)

Tolosa

Eskubaloia Oiardon

Irailak 29, larunbata

■ 17:30 Kadete neskek, Territoriala: Usurbil K.E.-Egia.

■ 18:45 Jubenil neskek, Territoriala: Usurbil-Aiala Zarautz.

Futbola Haranen

Irailak 30, igandea

■ 11:30 Jubenilak:

Usurbil F.T.-Billabona K.E.

Igerilekua itxita

Aste hasieratik itxita dago Oiardo Kiroldegiko igerilekua. Eta hala segiko du datozen hilabeteotan. Igerileku txikia handitu eta irisgarri bihurtzeko lanak bideratuko dituzte. Itxierak ez du eraginik izango abonue-tan, "eta %20ko konpentsazioa berdin-berdin aplikatuko die Udalak Kiroldegiko abonatuiei".

Yoko-Garbin bazkide izateko deia

Zubietako Yoko-Garbi Elkartetik bazkide izateko azken aukerak dituzuela berri eman dute. NOAA!ra helarazi duten oharrean adierazi dutenez, urriaren 14ra arteko epea duzue Alamandegia jatetxean edo yokogarbielkartea1@gmail.com helbidean izen emateko.

Alamandegi etxean kokatuko da

"Familia bonoiez gozatzeko aukera, jubilatuei deskontu bereziak..." eskaintzen zaizkie. Informazio gehiago behar duenak ere lehen aipaturiko helbide horretara idatzi dezala. Yoko-Garbitik iragarri dutenez, elkartearen egoi-

tza berria Alamandegia etxean kokatuko da.

Zubietan, Endika Abril Errebote Txapelketako finalean

Villabonako Behar Zana taldeari 13-1 irabazi ostean joan den larunbatean, Zubietan Endika Abril Errebote Txapelketako

finalerako sailkatu da.

Luzean taldea izango da aurkaria

Igandean jokatuko dute finala etxean, Zubietan. Irailaren 30ean beraz, goizeko 11:00etan hasita, Donibane Lohitzuneko Luzean taldearen aurka.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro², 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbidearekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²-terrazza, 8 m² trasteleku eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komun, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trasteleku. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriena. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komun, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Alokairuan

Duplex-a alokatzen da, Kaxkoan, 100 m², 3 gela, 2 komun, terraza eta trasteroa. 688 675 856

Pisu bat alokatzen dut. 3 logela, egongela, 2 bainugela. Altxariak jarrita daude. Dena kanpo aldera, oso eguzkitsua eta garajearekin. Tel.: 659 786 281.

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-ekonomia bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

MOTORRA

Salmenta,

garaieak

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekaxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat atxegalden. Autoak sartzeko atareekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekaxiki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alerroburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegiari, info@restaurantearatz.com

Kentuene jatetxean jantokirako zerbitzari bat behar da aste-buruetarako. Euskara jakitea garrantzitsua. kentuene@kentuene.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore personal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Pertsona helduak zainduko nitzuke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interneta moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztailea edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia

onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorren ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztailea, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziekin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatrikoa eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsaldez. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsaldez. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanetan. 671 763 558.



Zorionak Libe!

Ostiral honetan 11 urte beteko dituzu. Hamaika! Ene!! Ondo ospatu eguna eta muxu handi bat.



Zorionak Manex eta Maddi! Abuztuaren 25ean, urte 1 eta urriaren 2an, 4 urte egin eta egingo dituzue! Ondo ospatu etxekoan partez eta muxu bana.

Heriotzak

June Aranguren Zubeldia

6 urterekin hil zen irailaren 14an Usurbilen



OHARRA: 2018ko urriaren 5ean aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: urriaren 1ean astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziakin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketarako lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako lanak egiten nahi dut. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketarako lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketarako lanak, helduen zaintza

lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauean. Garbiketarako lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportunitate umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesez eta frantsesean goi maila eta tituluduna.

687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauean... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketarako. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenera ostiralerara. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauean... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketarako lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko. Interna moduan, orduka edo

gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketarako, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketarako lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketarako, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

BESTELAKOAK

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

14 bat urteko eta eskumuturraren tamainako dordoka galdu dut. Babilio sentimental handia du. Aurkitu baduzu: 663 065 460.

Zapi bat galdu da, beisa eta granatea, Noauara ekarri mesedez.

Mandarin japoniarrik saltzen ditut: 659 18 51 07 (Jose Antonio).

Mutur txuri urdindun eta horidun perikito bana desagertu dira. Aurkitu badituzu deitu: 619 817 460.

Kale Nagusian, kazadora argi bat aurkitu da. Zurea bada, Aizpuru Okindegitik pasa, bertan dago.

Erloju bat galdu dut Santuenean. GPSa eta pultsometroa. Souto Gramin markakoa, beltza. Aurkitu baduzu deitu: 662 039 829.

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenera ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretoa ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 27 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 28 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 29 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 30 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 01 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astearte 02 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 03 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Irailak 27 - Urriak 07

Osteguna 04 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 05 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 06 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 07 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda iraila

28 ostirala

- "Sagardoa bidegile" dokumentala. 19:30ean Sutegin.
- "Herria Xutan": elkarretaratzea. 20:00etan Mikel Laboa plazan.

29 larunbata

- Kantu jira. 19:00etan Mikel Laboa plazan.
- EH-ko 4. Sagardo Txapelketa herrikoia-ren finala. 20:00etan frontoian.

30 igandea

- Endika Abril errebote txapelketako finala. 11:00etan Zubietako plazan.
- Imuntzo eta Belokirekin erromeria. 19:00etan Artzabal gunean.

Igande honetan, Imuntzo eta Belokirekin erromeria Artzabalen

Laukoteak, Guriak eta Artzabalek dantzaldia antolatu dute igande honetarako. Imuntzo eta Belokiren saioa arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

Juan Ramon Azpitarte *Imuntzo*-k (soinu txikia) eta Eleuterio Jauregi *Beloki*-k (panderoa, ahotsa) erritmo berriak erantsi dizkiote trikiti tradizionalari 1991n elkarrekin jotzeari ekin ziotenetik: tex-mex, cajun, country...

Ibilbide oparoa

Urteotan disko ugari kaleratu dituzte eta ehunka plaza eta erromerietan aritu, be-



Imuntzo eta Belokiren erromeria arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

tiere umorea, giro ona eta dantzarako gogoia piztuz.

"Sagardoa bidegile" dokumentala

Sagardotegi garaia tradizioa moderno da, baina erro sakonak ditu. Dokumentala ibilbide geografiko, kultural, teknologiko eta gastronomiko baten lekuko da. "Sagardoa bidegile" filma ostiral honetan ikusi ahal izango dugu. Arratsaldeko 19:30ean Sutegiko auditorioan, 'VI. Sagastiak Loretan' zikloaren baitan.

Larunbat honetan, Kantu Jira

Udako etenaldiaren ostean plazara itzuliko dira Kantu Taldekoak. Larunbat honetarako (irailak 29) iragarri dute kantu-jira. 19:00etan abiatuko da Mikel Laboa plazatik. Abestien liburuxka eramateaz ez ahaztu! Gogoan izan, Kantu Taldea astelehenero biltzen da entsegetarako 18:00-19:00 artean, Agerialdeko musika gelan.

Datozenak

Oroimen ekitaldia

Ostegunean, irailak 27, urtero moduan, Gudari Egunari lotuta ekitaldia deitu du Ezker Abertzaleak arratsaldeko 19:30etan Mikel Laboa plazan.

Pello Añorga Sutegin

Pello Añorga ipuin kontalaria Sutegiko udal liburutegian arituko da urriaren 17an. 6 urtetik gorako haurrei eskainitako saioa izango da. 18:00etan hasiko da emanaldia.

Arantxa Urretabizkaia Sutegin

12. Euskarazko Irakurketa Topaketarako Arantxa Urretabizkaia gonbidatu du Sutegiko udal liburutegiak. Urriaren 24rako finkatu dute solasaldia, 19:00etan liburutegian bertan. Gaurkotasun handiko gaia ekarriko du tertuliara. Bere "Bidean ikasia (1993-2016)" Hondarribiko alarde parekidean Urretabizkaia bizitakoaz diharduen eleberria komentatuko da, Yolanda Arrietak zuzenduko duen ekitaldian. Eleberriaren aleak aurrez irakurri nahi dituzuenok, eskuragarri izango dituzue liburutegian.

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



Bizi kalitatea hobetuz

Ondo pasa Saupraiskuak!

Lizarralde
ORTOPEDIA

Astelehenetik ostiralera: 09:15-13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 10:30-13:00

ALOKAIRUAN:
gurpildun
aulkiak,
ohe artikulatuak

-  Teknikari ortopeda kontsulta
-  Arreta pertsonal eta espezializatua
-  Online eta telefono bidezko aholkularitza
-  Salmenta ondorengo zerbitzua
-  Etxera banaketa
-  Eskailera igogailuen instalazioa
-  Komun eta etxebizitzaren egokitzapena
-  Diru-laguntzen aholkularitza eta tramitazioan laguntza
-  Produktu ortopedikoen salmenta eta aholkularitza
-  Zapata eta ortesi gama zabala

Lizarralde Ortopedia
Kazkazuri plaza 1 - behea
20180 Oiartzun

Tel: 943 543 585 Mugikorra: 688 678 583
andoni@lizarraldeortopedia.eus
www.lizarraldeortopedia.eus



ANORGA TRIBI S.L

KRISTALDEGIA



Beirazko itxitura sistema berria!!!
perfil bertikalik gabe!!
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
aukera zabalak!

Beirazko itxitura
seeglassone
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Usurbilen

bizi eta erosio!



Balio handia dauka herriko denda txikietan erosteak!

500 €

Adi egon, erosketak Usurbilen egitea aukeratzen duten familiak sarituko ditugu!



Usurbilgo Udala

hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Osasuneko Bazarra

Euskadi, nazionala, bizi onena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERROLDU, MERKATUAK
ETA AROGAREN SAILA
DEPARTAMENTU DE TURISMO
COMERCIO Y CONSUMO